

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2022 Erabakia, otsailaren 1ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko Datuak Babesteko ordezkaria izendatzeari**

Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrak (2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) 37.1 artikuluan xedatzen du ezen, datu pertsonalen tratamendua aginte edo organismo publiko batek egiten duen guztietan, datuak babesteko ordezkari bat izendatu beharra dagoela.

Ildo beretik, Datu Pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 34. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten du datuak babesteko ordezkari bat izendatu beharra.

Arabako Foru Aldundiaren lanpostu zerrenda aldatzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 329/2021 Erabaki bidez datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak esleitu zitzaizkion Idazkaritza Orokorreko teknikari legelariaren lanpostuari.

Azkenik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sai-leko foru diputatuaren urtarrilaren 13ko 7/2022 Foru Aginduak xedatzen du Aiala Olarte Hurtado behin betiko atxikitzea Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuko teknikari legelari lanpostura, 2022ko otsailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Horregatik, Diputatu Nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Aiala Olarte Hurtado izendatzea Arabako Foru Aldundiko datuak babesteko ordezkari, behin betiko funtzionario gisa atxikita baitago Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuko teknikari legelariaren lanpostuari.

Bigarrena. Datuak babesteko ordezkaria izanik, eginkizun hauek beteko ditu:

1. Tratamenduaren arduradun edo erantzuleari eta Arabako Foru Aldundiko langileei informazioa eta aholku ematea datuen babesaren gaian aplikatzekoa den araudiaren ondorioz dagozkien eginbeharrez.

2. Ikuskatzea datuen babesari buruzko araudian xedatutakoa betetzen den, eta tratamenduaren arduradun edo erantzulearen politikak datu pertsonalen babesaren gaian, barnean daukela arduen esleipena, tratamendu lanetan parte hartzen duten langileen kontzientziazioa eta prestakuntza eta dagozkion auditoretzak.

3. Eskatzen zaion aholkularitza ematea datuen babesarekin loturiko inpaktu ebaluazioaz, eta horren aplikazioa ikuskatzea.

4. Kontrol agintaritzari laguntzea.

5. Kontrol agintaritzaren kontaktu puntu bezala jardutea tratamenduarekin loturiko kontueta-rako, barnean dagoela aplikatzekoa den araudian aurreikusten den alde aurreko kontsulta, eta beste edozein gairen inguruko kontsultak egitea, hala badagokio.

6. Ordenamendu juridikoak datuak babesteko ordezkariarentzat aurreikusitako gainerako eginkizun guztiak betetzea.

Hirugarrena. Bermatuko da erakundearen barruan datuak babesteko ordezkaria independentea izango dela, eta interes gatazka oro saihestu beharko da. Tratamenduaren erantzuleak eta arduradunak bermatuko dute datuak babesteko ordezkariak ez duela jarraibiderik jasotzen eginkizun horiek betetzeari buruz. Erantzuleak edo arduradunak ez du hura kargugabetuko ez zehatuko bere eginkizunak betetzeagatik. Datuak babesteko ordezkariak erantzulearen edo arduradunaren hierarkia maila gorenari emango dizkio kontuak zuzenean.

Laugarrena. Erabaki honek 2022ko otsailaren 1etik aurrera ditu ondorioak, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Bosgarrena. Bat etorriaz Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrak 37.7 artikuluan araututakoarekin eta datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 34.3 artikuluan xedatutakoarekin, argitara emango dira datuak babesteko ordezkariaren beharrezko datuak, berarekin harremanetan jarri ahal izateko, eta haien berri emango zaio kontrol agintaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 1a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**